


Año LV. urtea

136 - 2023

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Euskal komiki-liburuak.
Goranzko joera baten
azterketa**

Naroa Zubillaga Gomez

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 136. zk. - 2023

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Egileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboen argitan Ane Berro Urrizelki, Leire Sánchez-Dorronsoro	287
Hizkuntzekiko Irakaskuntza Sentsiblearen gaineko usteak: EAEko LHko irakaslegaien iritziak aztergai Artzai Gaspar, Oihane Galdos, Eider Saragueta, Karin van der Worp, Leire Ituiño-Aguirre	321
William Wordsworth's <i>Sonnets Dedicated to Liberty</i>: the poems about Basque mountaineers Haritz Monreal Zarraonandia	347
Gatazka armatua eta genero gatazka bidegurutzean. Jokin Muñozen narratiba begirada feminista batetik Amaia Serrano Mariezkurrena	371
La notación de onomástica no latina en la documentación legerense: aspectos sociolingüísticos Guadalupe Lopetegui Semperena	397
Euskal komiki-liburuak. Goranzko joera baten azterketa Naroa Zubillaga Gomez	421
Kultura zinematografiko bat sortzeko bide luzea: XX. mendeko euskal idazleak zinemaren aitzinean (1910-1980) Josu Martinez Martinez	437
Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna Miren Artetxe Sarasola	457

Sumario / Aurkibidea

VARIA

La mano de Irulegi: reflexiones desde la paleohispanística y la vascoología [Dosier] Joaquín Gorrochategui, Ekaitz Santazilia (eds.)	485
La mano de Irulegi: edición y comentarios epigráficos y lingüísticos Joaquín Gorrochategui, Javier Velaza	491
Una mano cortada Francisco Beltrán Lloris	503
La inscripción vascónica de la mano de Irulegi desde la perspectiva ibérica Joan Ferrer i Jané	515
Observaciones sobre la inscripción de la mano de bronce de Irulegi Eduardo Orduña Aznar	539
Un enigma envuelto en un misterio: la interpretación lingüística de la mano de Irulegi Iván Igartua	551
Sobre la lengua de la mano de Irulegi: apuntes y conjeturas Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño	565
An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the hand of Irulegi Julen Manterola, Céline Mounole	583
Zorioneko y zorion: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca Joseba A. Lakarra	597
¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora <i>directa</i> del euskera histórico? Mikel Martínez-Areta	617
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	639

Euskal komiki-liburuak. Goranzko joera baten azterketa

El libro de cómic vasco. Análisis de una tendencia al alza

The Basque comic book. Analysis of an upward trend

Naroa Zubillaga Gomez
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
naroa.zubillaga@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0001-8181-2622>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv136.6>

Jasotze data: 2023/05/24. Behin-behineko onartze data: 2023/07/01. Behin betiko onartze data: 2023/10/30.

LABURPENA

Aspalditik dago komikia, bere euskarri ugaritan, gure artean. Azken urteotan, gainera, badirudi komiki-liburuak goranzko joera bizi duela. Ordea, lan gutxi dago euskarazko komikigintzaren gainean, eta argitalpenei buruzko datu oinarrizkoak falta dira. Artikulu honek Komikilib euskaraz argitaratutako komiki-liburuen katalogotik ateratako emaitzen berri ematen du. Katalogoan biak sartu dira, jatorriz euskaraz sortutako komikiak nahiz beste hizkuntzetatik euskaratutakoak, baina soilik komiki-liburuak, kanpo geratu baitira komiki-tirak, aldizkariak eta fanzineak. Emaitzek erakusten dutenez, itzulpena da nagusi, eta frantsesetik eta gaztelaniatik itzultzen da batez ere.

Gako hitzak: komikigintza; euskal literatura; itzulpengintza; ikerketa deskribatzailea.

RESUMEN

El cómic vasco no es un fenómeno nuevo, pero parece que en los últimos años el libro de cómic vive una tendencia al alza. Sin embargo, hay pocos estudios sobre el cómic en euskera, y faltan datos básicos en torno a su publicación. Este artículo da cuenta, por tanto, de los resultados obtenidos del catálogo de libros de cómic en euskera, Komikilib. En el catálogo se han incluido tanto los cómics escritos originalmente en euskera como los traducidos de otros idiomas al euskera, pero solo los libros de cómic, ya que se han excluido las tiras, las revistas y los fanzines. Los resultados muestran que predomina la traducción y que se traduce sobre todo del francés y del castellano.

Palabras clave: cómic; literatura vasca; traducción; análisis descriptivo.

ABSTRACT

Comic books have been with us for a long time in their many forms. Furthermore, in recent years, comic books seem to be experiencing an upward trend. However, there are few works on comics in Basque, and there is a lack of basic publication data. This article reports the results derived from the catalogue of comic books published in Basque, Komikilib. The catalogue includes both original comic books in Basque and those translated into Basque from other languages, but only comic books, as comic strips, magazines and fanzines were excluded from the catalogue. The results show that, in Basque comic books, translation predominates, mainly from French and Spanish.

Keywords: comics; Basque literature; translation; descriptive analysis.

1. SARRERA. 2. AURREKARIAK. 3. METODOLOGIA. 4. EMAITZAK. 4.1. Euskaraz sortuak. 4.2. Euskarara itzuliak. 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Egunkari eta aldizkariak izan dira komikiaren sorleku, eta, beraz, aspalditik ditugu gure artean. Lehen komikiak XIX. mendearen hondarrean eta AEBn argitaratu omen ziren, bertara joandako kolonizatzaile artistak Europako karikatura-egileengan eta irudidun kontakizunetan inspiratu baziren ere (Kaindl, 1999, 263.-264. or.). Komikia, hala ere, hainbat formatu eta euskarritan zabaldu den adierazpidea da, eta zaila gertatzen da definizio bakar bat ematea; Kaindlekin definizio orokor samar bat ematen digu: «Comics are narrative forms in which the story is told in a series of at least two separate pictures» (Kaindl, 1999, 264. or.). Hain aspaldikoa izanagatik, ordea, komikia ikeretzeko tradizio luzerik ere ez dago gurean, Europan Frantzia eta Belgikako salbuespenak salbu (Retolaza, 2017, 18. or.).

Horrenbestez, artikulu honen helburua da euskal komikigintzaren azterketa kuantitatibo bat egitea, eta, horretarako, argitalpen kopuruak emango ditugu, euskaraz sortutako komiki kopurua eta beste hizkuntzetatik euskarara itzulitakoa bereizita. Hori eginda, egoeraren argazki orokorra lortzeko behar diren funtsezko datuak plazaratu nahi ditugu.

Liburu-denda eta liburutegietan komikiei eskaintzen zaien lekua eta presentzia hazi egin dela ikusita, gure hipotesia da argitalpen-kopuruak handitu egin direla azken urteotan, euskaraz sortutako komikiena nahiz euskarara itzulitakoena. Nolanahi ere den, zenbakietan oinarritu gabeko hipotesia da hori, eta, hain zuzen ere, zenbakiak eta proportzioak ezagutu nahi ditugu.

Beraz, artikulua honi sarrera ematen dion atal honen ostean, ikergaiaren gainean aurretik egindako lanen nondik norakoak aipatuko dira. Ondoren, azterketa egiteko emandako pauso metodologikoak zein izan diren azalduko dugu eta, jarraian, emaitzak plazaratuko ditugu, euskaraz sortutako komikiak eta beste hizkuntzetatik euskarara ekarritakoak bereizita. Azkenik, azterketak eskaintako datuetatik ateratako ondorioak emango ditugu.

2. AURREKARIAK

Literatur ikasketetan, AEBn nagusitu da komikien inguruko ikerketa akademikoa. Komikia adierazpide gisa ulertzeko erreferentziatzeko bihurtu diren lan akademikoak daude (McCloud, 1993) eta, are, baita, hitzen eta irudien arteko harremana aztertuta, pertsonaren pentsamendu bisualaren inguruko hausnarketa filosofikoagoak ere (Sousanis, 2015). Europan, frantziar edo belgikar tradizioan daude ikerketa esanguratsuenak (Groensteen, 1999, 2009, 2011).

Itzulpen-ikasketetan, esan daiteke duela gutxi eman zaiola arreta komikiaren itzulpenari. Lan aitzindari eta aipagarrienetako bat Zanettinek 2008an plazaratutako liburukia da. Ordutik aurrera, han eta hemen, behin eta berriz argitaratu dira komikiaren itzulpena aztertzea helburu duten lanak, baina gehienak komiki bakan batzuetan oinarritzen dira, eta, gehienek komikiari bere kode aniztasuna aitortzen badiote ere, funtsean, testuaren itzulpenari erreparatzen diote soil-soilik. Horren aurrean, komikiak anizkoitza den modalitate batetik aztertzeko aldarria egin zuen Kaindlek (1999); alegia, testuari eta irudiari bakoitzari bere aldetik erreparatu beharrea, bien osotasuna aztertzea. Hala, umorea aztertzeko eskema edo metodologia multimodal bat aurkeztu zuen, zeinaren arabera, testuan nahiz irudian, bi baliabide semiotikootan gertatzen diren fenomenoak hartzen dituen kontuan (Kaindl, 2004, 175. or.). Itzulpen-ikasketetan komikiaren itzulpenaren gainean egindako azken azterketek Kaindlek ezarritako ildo horri eutsi diote (Borodo, 2015, 2016). Izan ere, askotan esan da komikien itzulpena, ikus-entzunezkoen itzulpenaren moduan, itzulpen-mota baldintzatua dela (Mayoral et al., 1988), baina azken ikerketetan hainbat adituk diotenez, testuaren eta irudiaren arteko harreman baldintzatu horrek ez du zertan ezkorra izan, eta, itzulpen baldintzatu baino gehiago, itzulpen multimodala dela azpimarratzen dute (Borodo, 2016; Porras, 2021).

Euskal komikigintzaren inguruan, Juan Manuel Diaz de Guereñu dugu ikertzaile aitzindarietako bat (Díaz de Guereñu, 2023). Komikia ulertzeko oinarritzeko gida bat ere badugu euskaraz (del Rey et al., 2021), baina lanik aipagarriena Iratxe Retolazarena dugu, hots, *Eguno euskal komikiaren historia* izeneko liburukia (Retolaza, 2017), UPV/EHUko argitalpen zerbitzuak plazaratzen duen Euskal Literatura Saila bilduman argitaratua. Lan horri hasiera ematen dion sarreran, Retolazak xehe bezain mamitsu aztertzen du euskal komikiaren sorrera eta bilakaera, eta ezinbesteko irakurketa da euskal komikigintza ulertu nahi duen edonorentzat. Sarrera horrez gain, euskal komikigintzan adierazgarriak izan diren zenbait komikiren azterketak biltzen dira.

Euskal itzulpen-ikasketetan, berriz, apenas egin da azterketarik, Montoriok *Senex* al-dizkarirako idatzitako artikulua salbu (Montorio, 2005). Artikulu horretan, komikiak euskaratzeak berekin dakartzan zenbait ezaugarriren berri ematen du egileak, eta, hain zuzen ere, komikien itzulpenari erreparatzen dion lan bakarra da hori.

Komikiak, ordea, goranzko joera hartu du, baina hori berresten duten datuak falta ditugu. Estatu espainiarrari erreferentzia egiten dioten datuak baditugu, komikiei bideratutako Tebeosfera webguneak urterik urte argitaratzen baitu Espainian komikigintzak utzitako datuak, hots, zenbat, zer eta non argitaratzen den. Bada, Tebeosferak 2022. urteari dagokionez plazaratutako datuen arabera, komikien ekoizpena goranzkoa da: 2022an 800.000 orrialde baino gehiago ekoitzi ziren Espainian, eta hori 2021ean baino % 19 gehiago da, eta duela 10 urte baino % 62 gehiago (Tebeosfera, 2023).

Txosten berari erreparatuta, itzulpenak komikigintzan duen pisuaz ohar gaitzake. Izan ere, 2013tik espainiar estatuan sortutako komikien kopurua jaitsi egin omen da pixkanaka, erdira jaitsi ere; beste hizkuntzetatik itzultako komikien kopuruak, ordea, gorantz egin omen du etengabe, eta, gaur egun, argitaratzen den kopuruaren hiru laurden itzulpena omen da (Tebeosfera, 2023, 27.-28. or.).

Badirudi, beraz, itzulpenak leku nabarmena izan lezakeela komikigintzan, baina aipatu zenbakiak espainiar estatuari egiten diote erreferentzia. Itxura guztien arabera gorantz doan adierazpide horri dagokionez, interesgarria da Euskal Herrian zer gertatzen den ikustea. Jarraian, beraz, euskal komiki-liburuen lehen azterketa hori nola egin dugun azalduko dugu.

3. METODOLOGIA

Artikulu honetan aurkezten den honek egoera jakin baten behaketa duenez helburu, metodologia deskribatzailea du helduleku, eta katalogoa osatu eta hura xehatetik ateratako ondorioen azalpena izango du oinarri.

Artikulu honen egileak itzulpen-ikasketetan dihardu. Hain zuzen ere, metodologia deskribatzaileak tradizio luzea du Itzulpen Ikasketetan, Holmesek (1972) identifikatutako hiru adarretatik deskribatzailea bereziki emankorra izan baita itzulpengintzari ekarpenak egiteko. Touryk (1995) oinarrizko hiru urrats identifikatzen ditu itzulpen-ikasketak deskribatzaileetan; alegia, hipotesia, behaketa eta egiaztapena. Bigarren urratsak, behaketak, hainbat pauso metodologiko biltzen ditu, katalogo bat egitetik hasten baita, baina, ondoren, behaketatik ateratako ondorioetan oinarrituta, adierazgarriak diren testuen corpusa osatu eta testuak aztertzea baita xedea (Gutiérrez Lanza, 2005).

Komikiaren ikerketa-esparrura etorrira, azken azterketa guztiek azpimarratzen dute komikiaren kode-aniztasuna, hots, testuaren nahiz irudiaren arteko harremana bere osotasunean aztertzeko beharra (Borodo, 2016), eta, beraz, katalogazioan bertan ere ilustratzaileen izenak jaso dira. Etorkizuneko pauso batean eta Borodok dioenarekin bat etorritik, liburu jakin batzuk aztertzeko unea iritsiko balitz, kode aniztasuna kontuan

hartuta lan egitea ezinbestekoa litzateke, hau da, testu hutsez osatutako corpus bat baino gehiago, testuek eta irudiek osatzen duten corpus bat osatzea, ikus-entzunezkoan ere egiten den bezala (Chaume, 2004).

Nolanahi den, hemen aurkezten dugun hau hastapeneko urrats bat baino ez da, katalogazio-lan baten emaitzak aurkezten baitira, eta, beraz, katalogazio-lan honetatik ateratako emaitzak eta hausnarketak kontuan hartuta erabaki beharko litzateke zer-nolako traza eman ondorengo ikerketei.

Komikigintza gizartean hezurramitzen den ekintza izanik, Kaindlek (1999) Bourdiouren teoria soziologikoa aplikatzearen beharra ere azpimarratzen du, sektorearen «eremua» eta agenteen «habitusak» aztertze aldera. Aipatu teoria helduleku izanik, egileak dio, adibidez, AEBn batez ere funtzio ekonomikoa bete izan duela komikiak, eta frantziar tradizioan, berriz, kapital sinboliko bihurtu dela. Alemanian, esate baterako, komikia mespretxatu egin zen Bigarren Mundu Gerraren ostean, gizartearentzat txarra zelakoan, eta, beraz, balio sinboliko hori irabazi behar izan du komikiak Alemanian (Kaindl, 1999, 271.-272. or.). Euskal literatur sistemari dagokionez, artean ez da egin komikiak zein funtzio eta balio betetzen duen aztertze ikerketarik. Euskal literaturan egin da halako azterketa bat, itzulpenak betetzen duen lekua aztertzea helburu zuena (Ibarluzea, 2017). Alabaina, teoria soziologikoa oinarri duen ikerketa bat egiteak esan nahi du komikigintzan eragiten duten baldintza guztiak kontuan hartu eta horiek aztertzea.

Oraingo honetan, lehenbiziko urratsa egitera mugatu gara, alegia, katalogazio-lanetik ateratako zenbaki gordinak aurkeztuko ditugu, eta horien interpretaziotik hauspotu litezkeen ikerketa-bideak ondorioetan aipatuko ditugu.

Katalogazio-lana ez dugu huts-hutsetik hasi, lehen-lehenik egingo baitzen frantsesetik euskaratutako haur- eta gazte-literaturako (HGL) lanen katalogoa (Zubillaga, 2021). Katalogo horretan HGLko lan guztiak bildu ziren, eta, beraz, «komiki» gisa katalogatutako horiek soilik hartu ziren kontuan. Ez ziren gutxi izan (132 sarrera), lehen ere esan dugun moduan, komikigintzak tradizioa baitu frantses hizkuntzan. Bigarren informazio-iturri ezinbestekoa Komikipedia webgunea (<http://www.komikipedia.eus>) izan da. Iñaki Otamendik kudeatzen duen euskal komikien katalogo horretan 2000. urtetik aurrera euskaraz argitaratu diren komiki-liburuak jasotzen dira, euskaraz sortutakoak nahiz itzulitakoak. Wiki aplikazio batean sortutako katalogo horretan edonork egin dezake bere ekarpena, kudeatzailearekin harremanetan jarrita (Kulturklik, 2015). Informazio-iturri oso fidagarria da, baina 2000. urtetik aurrera hasten da, eta ez lehenago; denbora ardatzean ez du oso atzera egiten, beraz, eta hutsune hori gaintitu nahi izan dugu.

Horretarako, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (<https://www.katalogoak.euskadi.eus>) egin dugu kontsulta, *euskara* eta *komiki* etiketak aplikatuta. Modu horretan, 2000. urtea baino lehenagoko argitalpenei dagokien hutsunea bete izana espero dugu.

Komikia hainbat modutan argitaratu bada ere, kanpoan utzi dira egunkari eta aldizkarietan ateratako hainbat eta hainbat komiki-tira, komiki-aldizkariak nahiz fanzineak.

Izan ere, euskarri horiek ez daude beti denak datu-baseetan sartuta eta zaila da horien guztien jarraipena egitea. Azterketa honen xederako, beraz, liburu-formatuan argitaratutako komikien katalogoa osatzera mugatu gara, eta Komikilib izena eman diogu.

Katalogazioa, jakina, amaitzen ez den zeregina da, eta aldian-aldian eguneratu beharrekoa, datuak erauzi nahi badira. Gainera, oso litekeena da hutsuneak edo akatsen bat edo beste egotea. Nolanahi den, katalogazioak berekin dakartzan alderdi ilunak dira horiek (Zubillaga et al., 2015). Alde ona da argitalpen-zenbakien inguruko oinarrizko informazioa eskura daitekeela.

Oinarri horretatik abiatuta osatu da, beraz, Komikilib katalogoa, jatorriz euskaraz idatzirikoa eta euskarara itzulitakoak bereizten dituen, eta 2022. urtera arteko argitalpenak biltzen dituen. Excel taula batean osatutako katalogoa ustiatuta, zenbakiak atera ditugu, eta hurrengo atalean aurkeztuko dira emaitzak.

4. EMAITZAK

2022ra arte egindako katalogazio-lanaren arabera, 569 komiki-liburu argitaratu dira euskaraz, euskaraz sortutakoak nahiz euskarara itzuliak kontuan hartuta. Hasiera batean berrargitalpenak ere kontuan hartzen hasi ginen, interesgarria izango zelakoan argitaratu berrien eta berrargitalpenen kopuruak erkatzea. Ordea, katalogazioa berez baldin bada konplikatu, berrargitalpen guztiak kontuan hartzea are konplexuago da, Irakurketa Publikoko Sarean maiz ez baitira berrargitalpen guztiak jasota agertzen. Datu hori ahalik eta modurik fidagarrienean jasotzeko, argitaletxeekin harremanetan jartzea litzateke onena, baina azterketa honen helburuak gainditzen ditu prozedura horrek, eta, beraz, berrargitalpenen datua oraingoz kontuan ez hartzea erabaki dugu.

Katalogazio-lanean, nolanahi ere, berehala sortzen dira zalantza eragiten duten salbuespenak. Kontaktuan bizi diren hizkuntzetan, izan ere, maiz argitaratzen da liburu bera hizkuntza batean zein bestean, eta, euskal komiki-liburuen kasuan, ez da beti erraza izan jatorriz euskaraz sortua ala euskarara itzulitakoak izan diren jakitea. Esate baterako, 46 kasu daude edizio elebidunekoak. Edizio elebidun horien artean sartzen dira:

- Euskaraz nahiz gaztelaniaz, bi edizioak izan dituztenak. Zenbaitzuetan (25 kasutan), ezin izan da jakin zein hizkuntzatan sortu den lehenik eta zeinetara itzuli den. Beste kasu batzuetan (20 kasutan), berriz, badakigu gaztelaniazkoa dela jatorrizkoa, euskarazkoan itzultzailearen izena ageri delako.
- Euskaraz nahiz frantsesez, bi edizioak izan dituztenak. Kasu bakarra dugu katalogoan, eta ez dakigu zein hizkuntzatan sortu zen lehenik.


Bestalde, 10 kasu eleanitz daude. Horrek esan nahi du hainbat hizkuntza nahasi dituztela komikiaren barnean, euskara barne (Ian Nose egilearen *Ed Frame* lanak, esaterako). Nolanahi den, euskara hizkuntzetako bat denez, euskal komiki gisa sartu ditugu horrelakoak.

Gainerakoan, badira inolako testurik ez duten bi liburu (*Homo. Suak dena aldatu zuenean* eta *Io. Bizitza handia dago hor kanpoan*); hau da, izenburua baino ez zaie euskarara itzuli, eta ilustrazio- edo edizio-mailan ez da beste aldaketarik egin. Horregatik, bi kasu horiek ez dute *jatorrizko hizkuntzarik* katalogoan.

Katalogazioaren garaian zalantza eragin duten kasu horien adibideak azaldu eta gero, lehenik eta behin euskaraz sortutako lanak eta itzulpenak zenbat diren bereiziko dugu.

Komikilib katalogotik erauzitako zenbakien arabera, 376 kasu identifikatu ditugu itzulpen gisa, hau da, katalogo osoaren % 66. Euskaraz sortutakoak, berriz, 161 dira, katalogo osoaren % 28,3. Bi multzo handien ehunekoak batuta ez gara ehunekora iritsiko, baina hori katalogazioan zehaztu gabe geratutako zenbait sarrerarengatik da, horiek geratzen baitira kalkulu horretatik kanpo. % 5,7 dago zehaztu gabe. Alabaina, euskarazko komikiak osotara hartuta, esan daiteke geroz eta gehiago argitaratzen direla urterik urte. Gorakada 2003. urtean hasi zen, urte hartatik aurrera urtero argitaratu baitira gutxien-gutxienik 10 komiki-liburu (hiru urteren salbuespena salbu, 2004an, 2005ean eta 2010ean 8 eta 9 komiki-liburu artean argitaratu baitziren). Benetako gorakada, berriz, 2015. urtetik aurrera gertatu da, urtero 20 komiki-liburutik gora argitaratzen baitira harrezkero. Esate baterako, 2021ean 39 komiki-liburu argitaratu ziren, 9 euskaraz sortutakoak eta 27 itzuliak.

Jarraian, bereiz aztertuko ditugu datuak, euskaraz sortutako komikiak, batetik, eta euskarara itzultitakoak, beste alde batetik.



1. irudia. Euskal komiki-liburuen argitalpena denbora-ardatzean.

Lehenbiziko irudiak denboraren ardatzean kokatuta jarri ditu osatutako katalogoko emaitzak, eta, beraz, alde batetik, euskarara itzulitako komikiak ageri zaizkigu (kolore gris argiz adierazita) eta, bestalde, euskaraz sortutako komikiak (kolore gris ilunez adierazita).

Aurren-aurreneko itzulpena 1948an daukagu, eta horixe da, gainera, ustez lehenbiziko euskal komiki-liburua (EIZIE, 2014). Baionan argitaratu zen *Ichtorio ederrena* izenburupean (jatorrizkoa Gaston Courtoisek idatzi zuen: *La plus belle histoire*) eta Pierre Narbaitzek euskaratu zuen. Umeek dotrina ikasteko komiki bat zen.

Ondoren, 1970eko hamarkadara arte itxaron behar da, 1972an argitaratu baitziren Tintinen hiru komiki. Urte horretatik aurrera –1975. urtea da salbuespena, urte hartan ez baitzen itzulitako komikirik argitaratu–, urtero argitaratu dira euskarara itzulitako komikiak, gehiago edo gutxiago, baina urteroko dinamika da. Bi puntu goren nabarmentzen dira: batetik, 1988koa, 22 itzulpen argitaratu baitziren, eta, bestalde, 2021ekoa, 27 itzulpen argitaratu baitziren.

1988an 8 itzulpen argitaratu ziren Donostiako Kriselu argitaletxean, klasikoak gazteenei komiki gisan gerturatzeko. Bestalde, Baionako Antxeta argitaletxeak 6 komiki-
ren euskarazko itzulpenak argitaratu zituen. Tintinen 3 itzulpen ere argitaratu ziren, eta Asterix eta Obelixen 4 komiki.

2021eko muinoan, berriz, denetariko itzulpenak aurkitzen ditugu, askotariko argitaletxeetan argitaratuak. Harriet (6 itzulpen), Saure (5 itzulpen) eta Astiberri (4 itzulpen) dauzkagu argitaletxe oparoenen artean.

Euskaraz sortutako komikiei dagokienez, lehenbizikoa 1978an aurkitzen dugu, Gregorio Murok egindakoa, *Iker eta Ixone: orrazi magikoa*, Ereinek argitaratua. Argitalpen-kopuruari erreparatuta, multzo honetan ere gorabeherak ditugu, baina bi puntu goren nabarmentzen dira, 1989koa 8 argitalpenekin eta 2017koa 12 argitalpenekin. 1989an 5 komiki argitaratu zituen Erein argitaletxeak, eta 3 HABEk. 2017ko 12 argitalpenetan, berriz, denetariko argitaratzaileak aurki ditzakegu, eta ez da gehiengo duenik nabarmentzen.

Aipatzekoa da, beste behin ere, euskal komiki-liburuen katalogoa dela honako hau, eta albo batera utzi direla egunkari, aldizkari eta fanzineetan argitaratutako komiki-tira guztiak. Horrek, jakina, erabat baldintzatu du euskaraz sortutakoen kopurua.

4.1. Euskaraz sortuak

Jatorriz euskaraz sortu direla markatutako 161 kasuei dagokienez, hainbat ezaugarri aipatuko ditugu orain.

Orotara, 82 gidoilari identifikatu ditugu. Ez da, hain zuzen ere, zenbaki txikia; hala ere, kontuan hartu behar da gehien-gehienek lan gutxiren gidoiak idatzi dituztela.

Katalogoko lan gehienak gidoiak Gregorio Murok egin ditu (ezizenez, Harriet); 20 sarrera dauzka dena, hau da, euskaraz idatzitako komikien % 12,4. Ondoren datoz Enkarni Genua, Mattin eta Zaldi Eroa, bakoitza 8 gidoirekin (% 5 bakoitzak). Nolanahi den, desberdintasun handirik ez dago gidoi-kopuru handienak idatzi dituztenen eta hurrengoaren artean.

Fenomeno bera antzeman daiteke marrazkilariei dagokienez ere. Alegia, ez dago lan mordoa bere gain hartu duen marrazkilaririk. Sakabanatuta ageri da lan kopurua. Izan ere, 79 marrazkilarik identifikatu dira. Ordezkatuenak, zortzina lanekin, Jesus Lucas, Mattin, Gregorio Muro eta Zaldi Eroa dira. Ondoren dator Julen Ribas (6 lanekin) eta, bosna lanekin, Asisko, Francisco Fructuoso, Patxi Gallego eta Adur Larrea.

Gidoilarien eta marrazkilarien arteko elkarlanari dagokienez, badira mantendu egiten direnak; esate baterako, Francisco Fructuosoren eta Gregorio Muroren artekoa, Iñaki Holgadoaren eta Harkaitz Canoren artekoa, Alex Sanviren eta Unai Iturriagaren artekoa, eta Jesus Lucasen eta Enkarni Genuaren artekoa.

Argialetxei dagokienez, asko daude (65), tartean argialetxe konbentzionalak ez diren hainbat baitaude. Hala, hainbat kultur elkarterek, baita udalek ere, komiki-formatuan argitaratu dituzte beren testuak, seguru asko modu horretan irakurle gazteengana iritsi nahi dutelako. Nolanahi ere den, hauek dira lan gehien argitaratu dituzten euskal argialetxeak, parentesi artean katalogoko lan-kopurua zehaztuta, ehunekoa barne: Erein (24, % 15), Ikastolen Elkarte/Xabiroi (16, % 10), HABE (14, % 8,7) eta Elkar (14, % 8,7).

Bestalde, zehaztu nahi izan dugu argitaratutako lanek zein adin-tarte izan duten helburu. Horretarako, liburutegi publikoen sareak gomendatzen duen adin-tartea apuntatu dugu, edo argialetxeek beren webgunean zehazten dutena. Aitzitik, askotan ez da adin-tartea zehaztea posible izan edo adin-tarteak zehazteko modu bateraturik ez dagoela ikusi dugu. Askotariko etiketak ikusi ditugu, 8 *urtetik gora*, 10 *urtetik gora*, 12 *urte*, 12 *urtetik gora*, 16 *urtetik gora* edo, batzuetan, adinari buruzko oharrik agertzen ez bada ere, komikiaren gaia zehazten den lekuan *haur eta gazteentzako liburua* jartzen du. Nolanahi ere den, aipatu behar da gomendatutako adin-tartea irizpide bat baino ez dela, argitaratutako komikiak batez ere gazte eta helduei edo haur gazteei bideratuta dauden jakiteko. Azken irakurlearen adin-tartea, azken buruan, oso zabalak izan liteke: edonor, egia esan. Hala ere, datuak erauzi ahal izateko, adin-tarteak bi talde handitan bereizi ditugu: 12 urtetik behera (haurrak) eta 12 urtetik gorakoak (gazteak eta helduak).

Hala, euskaraz sortutako komiki-liburuei dagokienez, kasuen % 34,8an ezin izan da zehaztu zein adin-tartetarakoak diren. Gehienak, hala ere, gazte eta helduei bideratutakoak dira (62 kasu, jatorriz euskaraz argitaratutakoaren % 38,5). Hurrei, hau da, 12 urtetik beherakoei, bideratutakoak gutxiago dira, 43 (% 26,7). Beraz, eta katalogoko kasu guztiak zehaztu ezin izan baditugu ere, gazte eta helduei bideratutakoak dira nagusi euskaraz sortutako komiki-liburuen artean.

4.2. Euskarara itzuliak

Beste hizkuntzaren batetik euskarara itzulitako komiki-liburuak, berriz, euskaraz sortutakoak baino gehiago dira, 376 identifikatu baitira orotara. Sortzen den lehenbiziko galdera da jatorrizko zein hizkuntza den ohikoena, eta, hain zuzen ere, datu hori zehaztea ez da beti erraza izan, batez ere argitalpen zaharrenen kasuan. Izan ere, horietako asko 1970eko eta 1980ko hamarkadetan argitaratutako komikiak dira, eleberririklasikoetan oinarritutakoak (*Hiru txerrikumeak*, *Intzaur koskailua*, esate baterako). Ez dakigu ziur jatorrizkoak gaztelaniaz argitaratu ziren ala katalanez (Abadia de Montserrat argitaletxeak atereak dira). Badaezpada, gisa horretakoak *ES?* etiketa baliatuta markatu ditugu.

Hala, bada, 1. taulak erakusten ditu euskarara itzulitako komiki-liburukien kasuan, jatorrizko hizkuntzari dagozkion zenbakiak:

1. taula. Katalogoko komiki-liburu itzulien jatorrizko hizkuntzak

FR	176
ES	170 (+ ES?, 8) = 178
EN	12
IT	6
GA	1
PO	1

Lehenbiziko taulak agerian uzten duen moduan, beraz, frantsesetik eta gaztelaniatik itzultzen da gehien. Nabarmen dira, gainera, jatorrizko hizkuntza ohikoena. Kontuan izan behar dugu jatorrizkotzat gaztelaniatzko bertsioa duten zenbait kasu zalantzazkoak direla, eta, beraz, balitekeela jatorrizko hizkuntza ohikoena frantsesa izatea (176 kasu) eta ez gaztelania, gaztelaniaren kasuan 170 baitira ziur samar hala markatutakoak, eta zalantzazkoak gehituta bakarrik dira frantsesetzkoak baino ugariagoak.

Jatorrizko hizkuntza frantsesa duten liburuei dagokienez, 52 jatorrizko egile identifikatu ditugu orotara. Autore gehienei, ordea, komiki-liburu bakarra itzuli zaie. Komiki-liburu gehien itzuli zaien egileak dira Goscinny (59) eta Hergé (29). Frantsesetik euskarara itzulitako lanetatik % 33,5 dira Goscinnyrenak, eta % 16,5 Hergérenak. Bien artean, beraz, frantsesetik euskaratu diren liburuen erdia osatzen dute. Datu horrek frantsesetik euskaratutako HGLari buruzko azterketan egiaztatutakoa berresten du (Zubillaga, 2021). Bi egile horien nagusitasunak eragin du, inondik ere, frantsesak halako pisua izatea euskaratutako komikigintzan. Ikusi beharko da etorkizunean beste hizkuntzek hartzen ote duten frantsesak izan duen pisua.

Zein argitaletxe frantsesetatik itzuli den esatea, berriz, ez da hain erraza. Izan ere, komiki zaharragoen kasuan, kasurik gehienetan, ezin izan da datu hori bete. Kontuan hartuta frantsesetik euskaratutako komiki gehienak Goscinny eta Hergérenak direla, eta bi egile horiei dagokienez, ez dela jatorrizko argitaletxearen daturik jaso, argi dago

argialetxeari dagokion daturik ugariena bi horienak izango direla. Gainerakoan eta komiki garaikideagoei dagokienez, Bamboo (19) eta Delcourt (11) argialetxeetatik itzuli da gehien; biak ere komikigintzan berezitatuko argialetxe frantsesak dira.

Frantsesetik euskaratzen jardun duten itzultzaileei dagokienez, Joxemari Azurmendi dugu gehien euskaratu duena, gure katalogoaren arabera, 50 guztira; hau da, frantsesetik euskaratu diren komikien % 25,5 euskaratu du, laurden bat. Asterix eta Obelix eta TinTinen hainbat komiki itzuli dituelako gertatu da hori. Ondoren, M. Anjel Elustondo daukagu (24 itzulpen), zehaztu gabe dauzkagun hainbat sarrera (17 guztira), Maddalen Arzallus (13 itzulpen) eta Usua Lasa (12 itzulpen). Azken bi horiek aritu dira Asterix eta Obelixen komiki berrienak itzultzen.

Jatorrizko hizkuntza gisa *gaztelania* markatutako kasuei erreparatuz gero ere, egile zerrenda luzea dugu (87), frantsesetik itzuli direnena baino luzeagoa. Izan ere, gaztelaniatik itzulitako liburuen kasuan, ez daukagu Goscinyk edo Hergék duten bezain besteko pisuko egilerik. Gehien errepikatzen diren egileak dira Carlos Cornejo (14), Rafael Castellano (12) eta Artur Laperla (11). Lehenbizikoa Txiletik emigratu zuen eta Madrilen bizi izan zen komikigilea izan zen; besteak beste, hainbat klasiko moldatu zituen komikigintzara, eta horiek euskarara ere itzuli ziren (Kriselu argialetxearen bitartez). Rafael Castellanak, berriz, komiki historikoak landu ditu Hernaniko Orain argialetxean, eta horiek guztiak itzuli dira euskarara. Artur Laperla bartzelonarrak, berriz, *Superpatata* komikia sortu du, eta guztiak euskaratzen direnez, itzulpen ugari ditu gure katalogoan.

Gaztelaniaz argitaratzen duten argialetxeen datuari dagokionez, 38 sarrera hutsik daukagu (% 21,3), baina, gainerakoan, Saure argialetxeari euskaratu zaizkio lan gehien gaztelaniatik, 34 guztira (% 19) eta, ondoren, Astiberriri, 14 guztira (% 7,9). Saure eta Astiberri EAEn kokatutako komiki argitaratzaileak dira, eta, guzti-guztiak ez badira ere, komikietako asko euskaraz ere eskaintzen dituzte (gaztelaniaz eskaintzearekin batera), hau da, argialetxe horiek berek egiten dute euskararako itzulpena, eta, beraz, ulertzekoa da euskararako itzulpen kopururik handiena haiek izatea.

Gaztelaniatik euskaratzeko itzultzaile-lanari dagokionez, berriz, kasuen % 21,4an ezin izan dugu itzultzailea zein izan den zehaztu, baina, gainerakoan, Bego Montoriok ditu itzulpen gehien (15 guztira, gaztelaniatik euskaratutako komikien % 8,4), eta ondoren datoz Esther Lopez Epelde, *Superpatata*ren itzultzailea (11 itzulpen) eta Maialen Berasategi (Jordi Bayarrik sortutako 8 zientzialariren biografien itzultzaile aritu baita).

Gomendatutako adin-tarteari dagokionez, eta jatorrizko hizkuntzaren desberdintasunik egin gabe, 193 hurrei bideratutakoak dira (% 51,3), eta 121 gazte eta helduei (% 32,2). Zenbait kasutan (% 16,5) ezin izan da datua zehaztu. Jatorrizko hizkuntza ohikoenei erreparatuta, berriz, bada desberdintasunik: jatorrizko hizkuntza frantsesa duten komiki-liburuen kasuan, % 72 hurrei bideratutakoak dira, eta jatorrizko hizkuntza gaztelania dutenen kasuan, berriz, gehienak 12 urtetik aurrerakoei daude bideratuta (% 45). Desberdintasun horren atzean dagoen arrazoia da, hain zuzen ere, bai Asterix eta Obelix eta baita TinTin ere, 8 urtetik aurrerakoentzat bezala markatuta

dauzkatela liburutegi publikoek, eta, beraz, horrek puzten du hurrei bideratutakoeh ehunekoak. Jakina, lehen esan bezala, teorian hurrei bideratutakoak helduek ere irakur ditzakete. Nolanahi den, frantsesetik euskaratutako gehienak Goscinyren eta Hergéren lanak izateak eragin du euskaratutako komiki gehienak hurrei zuzendutakoak direla ondorioztatzea. Bi egile frantsesen komikiek adinik ez dutela, eta, izatekotan, gazte-helduei bideratutakoak direla erabakiko bagenu, ondorioztatuko genuke euskaratutako komiki gehienek gazte eta helduak dituztela helburu.

5. ONDORIOAK

Komikiak bazterreko ikerketa-eremua izaten jarraitzen du akademian. Frantzia eta Belgikan tradizio luzea izan du komikiak, eta komikien gaineko ikerketak ere bere ibilbidea du. Gurean, ordea, ez dirudi halako tradizioirik dagoenik. Hala, Ipar Euskal Herria maila politiko-administratiboan Frantzia kokatuta egoteak ez du, dirudienez, eraginik izan komikigintzari eta haren ikerketari dagokionez (Retolaza, 2017).

Ordea, maila akademikoan islatzen ez bada ere, komikia geroz eta leku handiagoa hartzen ari da euskal literaturan, beharbada ikus-entzunezkoek eragin handia izan dutelako gizartean eta bere kontsumo-moduetan, eta baliteke komikiak ikus-entzunezkoekin partekatzen dituen ezaugarri horiek bereziki komikia bera bultzatu izana.

Honako artikulua hau metodologia deskribatzaileari dagokion aitzineko urratsean oinarritu da, hots, katalogogintzan eta haren deskribapenean. Izan ere, badugu euskal komikiaren historiari erreparatzen dion erreferentziako liburu bat (Retolaza, 2017), baita komikiaren euskarazko itzulpena aztertzen duen artikulua bat ere (Montorio, 2005), baina lan bakanak dira, eta egoeraren argazki orokor bat eta oinarritzko datuak falta dira. Hutsune horri erantzun bat eman nahi izan dio artikulua honek.

Hala, ahalik eta deskribapenik osatuena izan dadin, jatorriz euskaraz sortutako komikiak nahiz euskarara itzultutakoak hartu dira kontuan. Aitzitik, komiki-liburuak baino ez dira katalogatu. Jatorria komiki-tiran duen adierazpidea bada ere, zaila da argitalpen guzti-guztien jarraipena egitea, aldizkari eta fanzineak ez baitira askotan datu-baseetan ageri. Katalogazio-zailtasunak bultzatuta, beraz, komiki-liburuetan ezaurre da muga.

Komikilib izeneko katalogoa osatu eta bertan jasotako datuei begiratuta, ondoriozta daiteke itzulpena dela nagusi euskal komiki-liburugintzan (katalogoaren % 66 da itzulpena). Jakina, komiki-tirak, aldizkariak eta fanzineak katalogotik kanpo utzi izanak eragina du datu horretan, horiek katalogatzeak euskaraz sortutako komikien datua nabarmen igoko bailuke. Horregatik, azpimarratzekoa da euskal komiki-liburuetan dela itzulpena nagusi, eta ez euskal komikigintzan, oro har. Nolanahi den, eta betiere komiki-liburuei gagozkiola kontuan hartuta, itzulpenen kopurua sorkuntzazkoena baino handiagoa izatea gure literatur sistemak bizi duen egoeraren isla izan liteke, hain zuzen ere, itzulpenek betetzen duten funtzioetako bat izan litekeelako sistemak behar dituen hutsuneak betetzea.

Euskaraz sortutako liburu-komikiei dagokienez, HABE eta Erein izan dira argitale-txe nagusiak, baina badira komikigintzan berezitu diren argitaletxeak ere (Saure eta Astiberri), komikiak gizartean duen goranzko joeraren erakusgarri.

Itzulpenei dagokienez, berriz, frantsesetik eta gazteleratik egin dira batez ere. Frantsesak badu komikigintzan tradizioa, eta horrek arrazoitzen du frantsesetik hainbeste itzuli izana. Izan ere, Goscinny eta Hergéren komiki-liburuak ugariak dira, eta guz-tiak itzuli dira euskarara. Gaztelaniaz ez dago komikigintzan halako tradizio luzerik, baina, hala ere, euskarara itzulitakoen artean, bistakoa da maiz jo dela gaztelaniara, gertutasunagatik batetik, baina, bestalde, gaztelaniaz ere komikiak gora egin duelako (Tebeosfera, 2023, 5. or.).

Nolanahi den, katalogoa osatzen eta ezarritako aldagaiei erreparatzen jarraitu behar-ko da, orain behatutako joerek aldatzeko trazarik erakusten ote duten ikusteko. Balite-ke, esate baterako, datozen urteotan ingelesa ere pixkanaka lekua hartzen hastea.

Gaur-gaurkoz, euskaraz sortutakoez gain, jatorriz frantsesez edo gaztelaniaz ida-tzitako komikien itzulpenak azter litezke xeheago, eta *aztertu* diogunean, ez gara hizkuntza-azterketa soilaz ari, komikiak bere bi kodeen azterketa bateratua egitea eskatzen baitu, testua eta irudien arteko uztarketari erreparatuta, alegia. Era berean, euskarara itzulitako komiki batzuk nahiz jatorriz euskaraz argitaratutako beste ba-tzuk hautatu litezke, eta horien azterketa kontrastiboa egin, edo duela urte batzuk argitaratutako komiki batzuen eta nahiko berriak diren beste batzuen arteko azter-keta kontrastiboa egin. Gisa horretako azterketek komiki-hizkuntzan erabili ohi di-ren onomatopeien eta interjekzioen zerrenda eguneratu bat osatzen lagunduko lukete, esate baterako.

Gainerakoan eta hemendik aurrera, katalogoaren azterketa osatuko lukeen azterketa xeheago eta soziologikoago bat egin liteke, hala nola euskal komikiaren mundua hobeto ulertzen laguntzen duten aldagaiak kontuan hartuta: datuak gurutzatu eta, euskal literatur sisteman argitaratzen den liburu-kopurua osotara zein den ikusita, kopuru ho-rretan komikiak zein leku duen ikusi; sorkuntzazko nahiz itzulitako komikiari eskain-tzen zaizkion dirulaguntzak eta sariak aztertu; komikigileen nahiz komiki-itzultzaileen lan-baldintzak ezagutu; argitaratzen diren euskal komikiek euskal literatur sisteman duten harrera eta jasotzen dituzten kritikak ikertu, eta abar.

Hala, honako hau ikerketa bide berriei atek zabaldu nahi dizkien lehen artikulua deskribatzailea da. Zalantzarik gabe, euskal komikigintzaren inguruko ikerketa gehia-go egiteak lagunduko du sektorea hobeto ulertzen eta akademian bertan ere ez horren bazterrekoa izaten.

6. ERREFERENTZIAK

- Borodo, M. (2015). Multimodality, translation and comics. *Perspectives*, 23(1), 22-41. <https://doi.org/10.1080/0907676X.2013.876057>
- Borodo, M. (2016). Exploring the links between comics translation and AVT. *TransculturAl*, 8(2), 68-85.
- Chaume, F. (2004). *Cine y traducción*. Cátedra.
- Del Rey, E., Goodrum, M. & Morlesín, J. (2021). *Komikiak aztertzeke gida bat*. UPV/EHU. <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?Id-Products=ULIPA213526>
- Díaz de Guereñu, J. M. (2023). Komikia Euskal Herrian. In *Auñamendi Entziklopedia*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/komikia-euskal-herrian/ar-153806/>
- EIZIE. (2014, ekainaren 10a). *Nork itzuli zuen lehen aldiz komiki bat euskarara?* <https://eizie.eus/eu/albisteak/1401127666>
- Groensteen, T. (1999). *Système de la bande dessinée*. Presses Universitaires de France.
- Groensteen, T. (2009). *La bande dessinée: son histoire et ses maîtres*. Skira-Flammarion.
- Groensteen, T. (2011). *Bande dessinée et narration (Système de la bande dessinée, 2)*. Presses Universitaires de France.
- Gutiérrez, C. (2005). La labor del equipo TRACE: metodología descriptiva de la censura en traducción. In R. Merino, J. M. Santamaría & E. Pajares (arg.), *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción* (55.-65. or.). UPV/EHU.
- Holmes, J. (1972). The name and nature of translation studies. In J. Holmes (arg.), *Translated! Papers on literary translation and translation studies* (67.-80. or.). Rodopi. https://doi.org/10.1163/9789004486669_008
- Ibarluzea, M. (2017). *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/26629>
- Kaindl, K. (1999). Thump, whizz, poom: A framework for the study of comics under translation. *Target*, 11(2), 263-288. <https://doi.org/10.1075/target.11.2.05kai>
- Kaindl, K. (2004). Multimodality in the translation of humor in comics. In E. Ventola, C. Charles & M. Kaltenbacher (arg.), *Perspectives on multimodality* (173.-192. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/ddcs.6.12kai>
- Kulturklik. (2015). Iñaki Otamendi: «Zaletasun hutsetik sortutako proiektua da Komikipedia». <https://www.kulturklik.euskadi.eus/albisteak/2018041712332605/inaki-otamendi-zaletasun-hutsetik-sortutako-proiektua-da-komikipedia/kulturklik/eu/z12-detalle/eu/>
- Mayoral, R., Kelly, D. & Gallardo, N. (1988). Concept of constrained translation. Non-linguistic perspectives of translation. *Meta: Journal des traducteurs/Meta: Translators' Journal*, 33(3), 356-367. <https://doi.org/10.7202/003608ar>
- McCloud, S. (1993). *Understanding comics: The invisible art*. Tundra.
- Montorio, B. (2005). Komikien itzulpena. *Senex*, 28, 99-110.
- Porras, M. (2021). Los territorios comunes del cómic y la traducción: leer, interpretar, traducir, adaptar. *Estudios de Traducción*, 11, 1-10. <https://doi.org/10.5209/estr.76145>

- Retolaza, I. (2017). Sarrera. In J. Kortazar (zuz.) & I. Retolaza (arg.), *Eguno euskal komikiaren historia* (15.-179. or.). UPV/EHU.
- Sousanis, N. (2015). *Unflattening*. Harvard University Press.
- Tebeosfera. (2023). *Informe Tebeosfera 2022. El año de la inflación*. https://tebeosfera.com/anexos/informe_tebeosfera_2022.pdf
- Toury, G. (1995). *Descriptive translation studies and beyond*. John Benjamins.
- Zanettin, F. (2008). *Comics in translation*. Routledge.
- Zubillaga, N. (2021). Una lengua meta y dos realidades distintas: la traducción de la literatura infantil y juvenil francesa al euskera. *Meta*, 66(2), 263-279. <https://doi.org/10.7202/1083178ar>
- Zubillaga, N., Sanz, Z. & Uribarri, I. (2015). Building a trilingual parallel corpus to analyse literary translations from German into Basque. In C. Fantinuoli & F. Zanettin (arg.), *New directions in corpus-based translation studies* (71.-93. or.). Language Science Press.